

bidegileak



Eusebio Osa (1936-1993)

Egilea:

MIEL A. ELUSTONDO



Eusebio Osa (1936-1993)

*G*izon segaila zen Eusebio Osa, plantako gizasemea. Euskara bikainaren jabe eta etorri handikoa, ahoz zein idatziz. Kulturadun, jantzia zen gogoz, eta pentsalari. Horiek horrela, erraz da ulertzen haren parean izan zirenek gure pertsonajea maite eta mirestea. Atzera gabe, aurrera begira bizi zen eta, izatekotan, horrexek ekarri zizkion buruko min handienak.

Aiherdi-Sakona, 1936

Begarako auzoa da Elorregi, San Prudentziotik gora. Bertan, lau baserri ziren garai batean; laurak, Aiherdi: Aiherdi Azpikoa, Aiherdi, Aiherdi Gainekoa eta Aiherdi Sakona. Azken honetan etorri zen mundura Eusebio Osa Unamuno 1936ko martxoaren 27an. Haren senideetan zaharrena, Anjel Osa dugu berriemale: «Gerrak irten zuenean nik sei urte neuzkan. Elorregi toki gordean dago baina honaino ailegatu zen gerra. Armen tiki-taka isildu



Aiherdi-Sakona baserriko Osa-Unamuno familia: guraso eta seme-alabak

gabe egon zen, handiko aldeko Irutontorreta menditik eta hemengo aldeko Zerain mendira. Etxezarretako txaran ere ibili ziren soldaduak. Gure baserrira ez ziren ezertara etortzen baina gora edo behera beti zegoen mugimendua Sakona inguruan. Bonbek egin-dako zuloak ere baziren hemen, baina denborarekin denak ezkutatu edo disimulatu dira». Sasoi eta giro horretan jaio zen Eusebio. «Gerra urtearekin jaio zen hura.» Hainbat senideko familia batean, jaio ere: Anjel, Pedro Mari, Eusebio bera, Juanito, Andres, Pakita, Eusebi... Sakona bertakoa ama, Kattalin, eta Mutrikuko Olatz auzokoa aita, Patxi.



Anai-arrebatan hirugarrena izan zen Eusebio

Baserrian bertan zituzten Federiko eta Anjela aitajaun-amandreak eta, honenbestez, Aihardi Sakona baserri atariko intxaurrondoak hazteko behar zituen ongarri behinenak izan ziren: zartagin eta errieta hotsa.

Bertako bizimoduak ez zuen sekreturik. Ganaduak zaindu, jolas egin, soroko beharrak... Edo belar ebakitzea. «Gure aita zenak esaten zuen Sakonako gari ebakitzailerik onena Eusebio zela. Pikolauan bazen soro-

txo bat, bastante patxada onekoa. Egun batean ebaki zuen Eusebiok, igitaiaz!, artean oso gaztetan.»

Umetan, gaixotasunak jo zuen Eusebio. Bronkioetatik jota ibili ohi zen. «Beti eztulka!», diote haren senideek. «Eta anginak ere kendu zizkioten. Amak kontatzen zuen Eibarren kendu zizkiotela, eta ume gizajoa dena odola dariola etorri zela. Orduan ez zen anestesia-rik ez ezer: ahoa zabaldu eta krak!, anginak



Bergarako San Prudentzio. Aihardi-Sakona baserria, Eusebio Osaren jaiotetxea



Eusebioren anaia zaharrena,
Anjel eta emaztea, Maritxu,
Sakona atarian

kendu. Zortzi bat urte izango zituen orduan gure Euxebiok. Gure ama zena ere bronkieetatik ibiltzen zen eta auskalo, beharbada jaioztatik izango zuen gaixotasuna.»



Anjel eta Juanito, Eusebioren bi anaia



Ikasten hasi eta auzo-eskolan ikasi zuen lehenengo: San Prudentzioko eskolara joan zen Eusebio Osa, anaiekin batera. Han, premiazkoenak ikasi eta Arrasatera gero, San Viator ikastetxera. Oñatiko agustindarren etxera joan zeneko hamaika-hamabi bat urte izango zituen.

San Prudentzioko elizaren atzeko eskola. Egun, elkartea



«Gurean argi famakoa hura zen, Eusebio»

Oñatiko agustindarrak

Anjel Osa eta anaia gazteagoa, Juanito, mintzo dira umetako denboren gainean: «Frai-deak mutiko bila ibiltzen ziren baserrietan, eta agustinoak ere sarri etortzen ziren San Prudentzioko elizara Don Joakin abade zegoela. Izan ere, hileta zenean-eta bi edo hiru abade behar igual mezatan, eta agustinoak etortzen ziren beti. Don Joakinek berak tratatu gehiago izango zuen haiekin». Eta beste jakin-garri bat ere bai, Eusebioren geroa zuzendu-

ko zuena: «Gure ama zenak kontatzen zuen Don Joakinek egin ziola Euxebiori agustinoetarako bidea. Abadetzarako asko balio zuena zela esaten zion Don Joakinek gure amari».

Oñatiko komentuko kide izanagatik, Eusebio Osak Haron igaro zituen 1962-64 urteak, Errioxaldeko klima lehorrak bere osasunari on egingo ziolakoan. Ordurako, ebakuntza larria, hil ala bizikoa, egina zioten Donostian, 1960ko uztailean: birika zatia kendu zioten. Meza eman aurreko kontuak dira...

Kepa Mallea Eusebioren ondoan izan zen Oñatin eta Haron. Gogoan du garaia eta giroa. «Oñatin ginela, gu mutikoak, bagenekien Euxebiok-eta aldizkari bat egiten zutela, euskaraz, baina guk beti erdaraz egiten genuen han, nahiz eta maisu gehienak euskaldunak izan eta ikasle denak ere bai: gu beti erdaraz, nobiziatu garaian behintzat. Izugarria zen. Haron, berriz, sekulako aldaketa izan genuen. Euxebio genuen arduradun eta bestela izan zen kontua: lehenengo-lehenen-



Kepa Mallea Eusebioren ondoan izan zen Oñatin eta Haron

go momentutik, beti euskaraz. Halakoxea zen Euxebio, euskararekin guztiz identifikatuta bizi zen. Beste hiruzpalau apaiz ere baziren Haron, euskaldunak, baina beti erdaraz egiten ziguten. Euxebiok ez. Euxebiok beti euskaraz. Eta Ebrora bainatzera jaitsi, apaizgai gazteak euskaraz bata besteari, euskaraz

Eusebiorekin, eta errioxarrek ez zuten dudarik: “vosotros, los vascos” (zuek, euskaldunak). Gazteak sotana erantzten hasi ziren, txapela janzten... bere burua “euskaldun” agertzen. Euxebiok ez zuen dudarik aldaketa zetorrela. Apaizgai gazteok sotana jantzi eta bizikletan ibiltzea-eta! Ez zitzaion iruditzen. Sotana erantzi eta aurrera. Baina nagusia zuen gorago, eta Euxebiori errierta! Edo film bat ikustera joan ginela Haroko antzokira, halamoduzkoa, nagusien iritziz, eta Euxebiori errierta beste behin! Guk, filma ikusi, buuruan besterik ez genuela. Euxebio, nagusien errierta nola eramango ote zuen kezkatan. Baina ez zen eztabaidan korapilatuko, garbi ikusten zuen bidea, oso zen pragmatikoa, eta aurrera egiten zuen, konplikaziorik gabe.»



Agustindarren etxea Oñatin



Haro sasoiko koadernoak: kanta bilduma



Apaiza eta apaizgaiak Haron, 1964 inguruan

Eusebioren apaizgai lagunek gogoan dutenez, Filosofia eskolak ematen zituen hark Haron. Irakasle kritikoa zen, oso, eta, Sartre, Camus, Kierkegaard eta beste, hitzean eta hortzean ibiltzen zituen. Pablo Anduaga agustindarra-
ren aburuz, filosofo eta poeta sena, biak era-
kutsi zituen Eusebio Osak ordurako. «Kan-
tuan ere ona zen. Bakarlari jarduten zuen
agustindarretan geundenean. Sermolari tre-
bea zela ere gogoan dut. Gainera, inork bai-
no hobeto ezagutzen zuen euskara; landua
zuen.»

Bestalde, Haroko sasoi hartako koaderno
bat dute gorderik oraindik Osaren apaizgai
lagunek. Eskuz idatzia da eta «Haro'n ikasita-
ko euskal abestiak. 1962-1963» dio. Bertan,
herri-kanta sorta handia: «Euskaldun jaio
nintzen», «Amonatxo», «Nigarrez jaio nin-
tzen», «Txarmengarria zira», «Gernikako ar-
bola», «Basatxoritxu»...



Pablo Anduaga, agustindarra

Euskararen eta Elizaren berrikuntza

Euskararen eta euskal kulturaren aldeko sua
irazekia zen ordurako, zenbait kongregazio
eta lagunen baitan beste batzuenetan baino
bero eta gartsuago betiere. Arantzazuko
frantziskotarretan *Yakin* aldizkari ezaguna sor-
tu zuten. Pasiotarrek, *Arnas* eta *Layaketan*...
Nork bere ahalegintxo egin zuen... Oñati-
ko agustindarretan beste aldizkari bat asmatu



Lehen meza eguna

zuten: *Erein*. Aldizkariaren egileetan, bi izen nabarmen: Eusebio Osa eta Patxi Lasa. *Sakona*, *Sakone*, *O'tar E.k*, *Osa'tar Euxebi*, *Eusebio Osa*... sinadurok eta beste baliatu zituen. *Erein* aldizkariaren aleetan nahizu-nahizu ageri diren izenak ditugu. Horiek, eta *Mallea'tar Yoseba K.*, *Uribetxebarria'tar Toma'k*, *Anduaga'tar Paul*... Aldizkari giro horrek bizi zituen hainbat apaizgai gazte. Tirtirienak, betiere: bertan ikasiak oinarri hartu eta aurrera egingo zuen gero Eusebio Osak.

Eusebio Oñatin zen Elizara berrikuntza heldu zenean, hau da, Vatikanoko II.aren garaia. Elizaren historiak XX. mendean duen unerik

garrantzizkoena. Aita Santu Joan XXIII.ak egin zuen kontzilioaren deia 1962an eta Paulo VI.ak itxi zuen 1965ean. Elizaren bizia berri-tzea zen helburu: fedea zabaltzea eta horrekin batera, sinestunen kristau bizitza eraberritzea. Batez ere, elizaren lan eta jarduna sasoiko behar eta moduetara egokitzea.

Eta Oñatin zen Euskaltzaindiak Arantzazun bilera egin zuenean. Bertan parte hartu ere zuen, garaiko zenbait argazkitan ageri denez. Eusebio Osa gazte lerdana erakusten digute sasoiko argazkiek. Orduan, Elizaren kasuan bezala, euskara sasoiko behar eta moduetara egokitzea zen helburu.



1968. Arantzazu, Euskaltzaindiaren bilera. Bertan parte hartu zuen Eusebio Osak



Giro berria ekarri zuen Vatikanoko II.ak. Eusebio eta apaizgai gazteak Urkiolara egindako irtenaldian

Aldaketa garaia Elizan, aldaketa garaia euskararen munduan, aldaketa Gasteizko apaizgaitegian. Hau orduantxe egin zen Teologia Fakultate. Berehala, berriz, Parisko 68ko maiatzaren hotsa eta burrunba aditu zuten apaiz eta apaizgai gazteen belarriek... Giro horretan murgildurik, eta Filosofia ikasketak bukatu orduko, Gasteiza etortzea eskatu zuten handik gutxira Oñatiko komentuan ziren hogeita hamarren bat lagunak. Askok unibertsitatea zuten amets. Gainera, beste bizimodu baten eske ari ziren gazteak: ez zegoen komentuan pilatuta egoteko aldarerik. Kepa Mallearen arabera, berriz, agustindarrek ere gogoeta egin zuten. «Konturatu zi-

ren ez zirela irakasle egokiak, nahiz eta Erromatik etorriak izan! Jabetu ziren gaiti buruz zer edo zer jakitea ez zela nahikoa eskola emateko. Gainera, ordurako, jendea komentuak uzten hasita zegoen, apaiz ikasketak uzten, alegia. 18-19 urte, komentutik irten, eta ez zuten ezer, ez titulu ez agiririk. Unibertsitatea eskatu genuen gazteok, titulazioa nahi genuen. Apaizgoa utzita ere ez genuen esku hutsik geratu nahi: hogeitaka urterekin ez lanean jakin ez titulaziorik izango genuen!»

Ez zegoen kontra egiterik. Agustindarrek ikastetxe berri-berria egina zuten Oñatin,

baina hori gorabehera, apaizgai gazteek Gasteiza zuzendu zituzten pausoak! Zenbait agustindarrek, zaharrenek batik bat, ez zuten batere ongi hartu erabakia. Ordena erlijiosoaren jarraipena ziurtatzen zuen belaunaldia ihes egiten ikusi zuten. Diziplina kontua ere bazen agustindar gazteak edonon eta edonola bizitzea... Eusebio Osak, asto beltzarenak entzun Oñatin eta hogeita hamar apaizgai gazteren arduradun eta zuzendari heldu zen Gasteiza. Tartean ziren Jose Mari Allur, Luis eta Zakarias Irizar lehengusuak, J. Luis Galdos, J. Mari Arregi, Rafa Etxegarai, Felix Razkin, Xabier Zaloña, J. Luis Lekunberri, Kepa Mallea, Pako Eizagirre eta beste zenbait lagun. Eusebiok zaindu eta gidatu zituen hiru etxe, apaizgai gaztez mukuru, harik eta gazteetako batzuk Bilbora joan ziren eta Valladolidera, berriz, beste batzuk. Hala ere, Gasteizen iraun zuten hamar-hamabi apaizgai gaztek hurrengo urteetan.

Eta haien apaiz izateko gogoia hozten hasi zenean ere, Eusebio hantxe, gazteen ondoan izan zela beti dio Kepa Malleak. «Haren esana zen: “Bakoitzak bere bidea topatu behar du!”. Gure bidea egiten uzten zigun: “Aurrera mutilak!”, esaten zuen. Artean agustindar ginela gu fabrikan lanean hastea ontzat eman

zuen, ez Oñatiren pentsura bizitzea, dependentzia ekonomiko horrekin! Euxebioren laguntza osoa izan genuen. Modu errazean zaindu eta gidatu gintuen Eusebiok Gasteizko urte zail haietan ere. Berezkoa zuen. Ez zen kontu-kontari alferrik ibiltzen. Hitz gutxi, baina sakonak. Eta beti, “bakoitzak bere bidea egin behar du”. Batzuk Gasteiztik Bilbora etorri ginenean, beti lagundu zigun. Poztu ere egin zen gu Bilbora etorri ginenean, nahiz eta lagunik handienek, bera gehien ezagutzen genuenok, ondotik alde egin. Galera afektiboa ere izan zuen gu, Josu Arregi, ni neu... Bilbora etortzea. Tasio Erkia gu baino zaharrago zen eta Bilbon zen ordurako, gu baino lehenago etorrita.»



Oñatiko komentutik Gasteizko kalera

Pako Eizagirrek gogoan du sasoi hura: «1967ko iraila zen. Gasteiza etorri eta apaizgaitegira joan eta etorri ematen genuen denbora, hara joaten baikinena eskolara». Hala ere, Vatikanoko II.aren aurrean, komentuko harresiak erabitsi eta kristauekin bat eginda bizi ziren hiriko kaleetan.

Horretan, gazteok aldeko izan zuten Oñatiko agustindarretan egin zuten lana. Bertan ziren gehienek euskaraz hitz egiten zuten, «etxeko euskara». Oñatin, alfabetatzen ere hasi ziren.



Araozko ikastaro-amaierako «akelarrea». Eusebio, buru

Eta Gasteiza etorriko zirela jakitearekin batera, euskarari eta euskal giroari eusteko modua izango zutela jakin zuten agustindar gazteek: Arabako hiriburuan bazen Brigida mojen komentua, Vicente Goikoetxea plazan inola ere, eta euskarazko meza egiten zituzten bertan, astean behin. Bertan egin zen gerra ondoko lehenengo euskarazko meza, Pedro Anitua apaizak esana. Soka horretan zetorren, beraz, Brigidetako euskarazko

meza, Gasteizko euskaltzaleak biltzeko balio izan zuen ekintza famatua. Gero, San Antonio kaleko Erreparadorak mojen elizan ere egin zen euskarazko meza.

Agustindar gazteak laster jabetu zirenez, mundua biltzen zen meza horietara: Gasteizen alde edo moldez euskararen alde ari zirenek biltzeko modua egiten zuten liturgiaren inguruan. Garai hartan apaizgaitegian zegoen Jon Kortabarria aramaioarra, eta bertatik bertara bizi izan zuen Oñatitik zetorren gazteen etorrera: «Eusebio zena eta beste apaizgai gazte batzuk Gasteiza heldu zirenean guk ia-ia ihes egiten genuen larunbatetan Erreparadorak komentuko mezatara joateko. Euskarazko mezak ziren, jakina, eta meza horrexen inguruan biltzen ginen euskararen alde ginenok, Eusebio eta beste». Huraxe zuten aterpe bakanetako bat Gasteizko euskaltzaleek eta, horien artean, apaizgai eta apaizek, Teologia Fakultateko irakasleak ez ziren eta hain zaleak Jon Kortabarriaren aburuz: «Irakasle batzuek euskaraz nik bezain ondo zekiten arren ez zuten pausorik egin euskararen aldeko bidean. Klandestinitate garaia zen. Ezkutuka ibiltzen ginen, paperak-eta bata besteari banatzen eta kontuak elkarri kontatzen». Paperak panfleto ziren, jakina, eta herri mugimendua, ETA, eta beste hainbat gai ageri ziren bertan. 1970ean Burgosko epaiketa izana zen, eta bero zen giroa, pil-pilean.

Ordurako, Andoni Urrestarazu *Umandi*, Peli Presa, Izaskun Arrue... ari ziren euskara ira-

kasten hiriburuan, Gasteizen euskara ikasteko kezka zegoen, beraz. Oñatitik etorritako gazteak hiriko bizimoduan txertatu ziren: Manuel Iradier elkartean bata, Aquinas klu-bean bestea, Judimendiko igeri elkartean hirugarrena... Poliki-poliki, kirol elkarteetako jendea galdezka eta eske hasi zitzaien apaizgai gazteei: euskal mezara joateko, mendi irteera egiteko... Eta Gasteiza apaizgai talde bat, euskalduna eta borondate oneko jendea, etorri zelako hotsa zabaldu zen. Oñatitik etorri eta zortzi-hamar lagun euskarazko eskolak ematen hasi ziren Gasteizen eta inguruetan. Hiriburuan jardun zutenen artean dira Felix Razkin, Pruden Sudupe, Pako Eizagirre, Rafa Etxegarai —haxe izan zen lehena, euskarazko eskolak ematen—, eta herrietan, Urbinan, Ubidean, Agurainen, Legution ari izan zirenetan, berriz, Eusebio Osa, Kepa Mallea, Jose Mari Allur...

Euskarazko eskolak ematen inguruko herrietara ere joan egin behar, ordea, eta apaizgai gazteek ez auto eta ez moto: batak eraman, besteak ekarri... Horrelaxe jardun zuten. Metodologiari dagokionez, Oñatibiaren *Metodo de Euskera Radiofónico* erabili zuen batek baino gehiagok, nahiz eta ez zen langai bakarra izan. Eusebio Osak berak hainbat material didaktiko sortu zuen garai hartan, alfabetatze eta euskalduntzerako langaiak betiere: irakurgaiak eta beroriek lantzeko ariketak.

Bat-batean zabaldu zen sua. Handik bi-hiru urtera, koordinatze beharra sentitu zuten,

uda ikastaroak egiten ere hasi ziren... Kora-pilorik korapilo, 1972-73 inguruan, Juan Bautista Gamiz izeneko koordinazio taldea sortu zuten, Pako Eizagirre oroitzen denez: «Bertan ginen Gonzalo Fontaneda, Juanjo Uranga, Ima Murgoitio, Anjel Ibisate, Eusebio Osa, Anjel Irigarai josulaguna, ni neu... eta talde horretatik kanpo ere ariko zen jendea, nahiz eta nik ez ezagutu. Liburutxo bat ere atera genuen: *Hizketan*. Hurrena, AEK sortu zen. Nik esatera, hiru aro egingo nituzke euskarazko irakaskuntzari dagokionez, Gasteizen. Batetik, Peli Presa, Urrestarazu, Izas-

kun Arrue eta hauen garaia dago, Arte eta Lanbide Eskolan eta pisu batzuetan saiatzen zirenak. Ondoren, gu, gazteagoak, Oñatitik etorri ginenok. Atzetik, talde bat antolatua-go, jende berriarekin, Ibisate, Ros, Gonzalo Fontaneda, Sorne, Jeni... eta beste hainbat lagun euskara ikasten eta irakasten jardun zuena, *Juan Bautista Gamiz* taldearen babesean. Ni talde horretako partaide sentitzen naiz».

Besteak beste, bi ikastaro trinko egin ziren, 1970eko udan, bata Leitzan, Gasteizko ikasleentzat, eta bestea Oñatiko ETEO ikas-tetxean, Andres Osak antolatua. Ikastaro honetako irakasle izan zen Eusebio Osa, Juanjo Urangarekin batera. Askoren artean, Pedro Migel Etxenike zientzialaria izan zuten ikasle. Handik urte askotara, akordura ekarriko



Araozko ikastaroan parte hartu zuten zenbait lagun

zuen Etxenikek ikastaro hura: «Nik oso oroitzapen politak ditut Oñatiko ikastaroari buruz. Giro politizatua zegoen eta askotan eztabaidatzen aritzen ginen. Era askotako abertzaleak zeuden han. Koko Abeberry, Enbatakoa, atseginez gogoratzen dut. Bi irakasle oso onak izan nituen: Juanjo Uranga eta Eusebio Osa».

1971n ere hilabeteko euskara ikastaro trinkoa egin zuten apaizgai gazteetako batzuek Araotzen. Gasteizen nabarmenak ziren apaizgai euskaldun horiek. Eliztarrak ziren eta gizarte-gaiak ere gogotik jorratzen zituzten. Greba Michelin lantegian, pintadak... eta polizia apaizgai gazteak begira Gasteizen, eta talde bat Araotzera zenean, Donostiako komisaria jarri zuten lanean, Araotzeko ikastaroa zer ote zen barrundatu nahian. Ikastaroa amaitu bezperan guardia zibilek inguraturik eduki zituzten euskara ikasleak. Biharamunean, poliziak ez zuen aukerarik eman Gasteizen eta atxilotu egin zituen apaizgai gazteak, eta hauen buru eta arduradun Eusebio Osa. Bai eta hebain-hebain egin ere.

Urte batzuk geroago, 1985ean, honela idatziko zuen Eusebio Osak, garai hartako euskara eskolen giroaz: «Gogoan dut oraindik. Han, Agurainen, ikasle-talde arraro bat sortu zen, goardazibil bikote bat barne zelarik, parroki etxe batean taldea barruan eta bikote unformatua eta trikorniatua kalean, leiho ondoan entzule erne. Hasi eta lasterrera, talde osoa bikote haren eskutan erori zen».



Arantxa Uribarri, Eusebio Osa zenaren alarguna

Garai latzak

Apaizgai gazteen bizilekua itxita ere, hainbat lagun eta familiaren babesa izan zuten. Gasteizen ziren euskaldunek aterpe eman zieten. Eusebioren alargun den Arantxa Uribarri ez du ahantzirik. «Akordatzen naiz gure amak esan ziola Eusebiori: “ez daukagu nahiko logelarik, baina badugu sofa bat ohe egiten dena eta, moldatzen bazara, aurrera!”». Eta Eusebiok onartu. Eta gure etxera etorri zen. Hara eta hona ibiltzen zen egunez, baina gure etxera erretiratu zen lotara hurrengo etxea ireki arte.» Antzera ibili ziren gainerako apaizgai gazteak ere, bi eta hiru hilabeteen auzoan biziz.

Eusebio Arantxa Uribarriren gurasoen etxean zela, hari batera eta bestera laguntzen hasi zen

etxeko alaba. «Horrelaxe ezagutu genuen elkar, meza giro hartatik aparte esan nahi dut. Lehenengo, euskarazko meza haietan ezagutu nuen, oso sermoi interesgarriak egiten zituela esaten zuten denek. Konpromiso garaia zen, eta kristau mugimendua ere bizirik zegoen. Eusebiok parte hartu zuen horretan. Bere pentsamenduak idatzi ere egin zituen. 1972an, urria edo izango zen, Arrasateko ikastolan zenbait gorabehera izan ziren eta hitzaldi egiten joan zen Eusebio. Neuk eraman nuen, autoan. Ordurako

idatzita zeukan *Pedagogia eta Gizartea* liburua eta izena hartzen hasita zegoen. Rosa Sensat-en mugimendua ezagutzen zuen Katalunian, Pablo Freireren berri zuen... Joera horien barne ari zen Eusebio. Euskal Herrian, bestalde, oso garai kritikoa zen: ikastolak hazten, heziketa berri baten aukera, euskara batuaren gorabehera, erlijioaren auzia... Euskal Herri osora zabaltzen ari zen alfabetatze kanpaina eta kanpaina horren baitan kokatu behar da Eusebiok eskainitako lan eta ekarpen bikaina.»



Lehenengo argitalpen kritikoak, pentsamenduzkoak

Gasteizen bertan, Estibalitz etorbideko ikastolan ari zen irakasle, Arabako lehenengo ikastolan, Izaskun Arruerekin eta, 1971n. Raimundo Olabide izena zeraman ikastetxeak. Arantxa Uribarri ere behin baino gehiagotan joango zen ikastolara, Eusebioren bila. Gau-eskolak ematen zituzten bertan. Baina giroa erabat pipertu zen, egoera bihurritu, Arantxaren esanetan: «Goizetik gauera, *persona non grata* izendatu zuten. Ateo zela, komunista zela, eta nik al dakit zer!». Zirenak eta ez zirenak leporatu zizkieten eta kalera bidali zuten Eusebio Osa. Jakina da, bestalde, zein zuen iritzia, ikastolek ez luketela erlijio sinesmena lantzeko leku izan behar uste baitzuen. Idatzi ere idatzi zuen hori 1972an, *Jakin* aldizkariaren *Gure ikastola* izeneko liburuan. Han idatziek eman zuten zeresana franko. Eusebio Osak eskola liberatzailea zuen amets, aurrera begira ari zen hura.

Erreparadorak mojen elizan meza ematen zuenean klase arteko borroka aipatzen hasi zen eta hori ez zitzaion askori batere gustatu. Ikastolan ziren umeek, berriz, hamalau urte arte bi hitz baino ez omen zuten jakin behar: Aita gurea, zeruetan zarena... Askok ez zuen onean eraman Eusebioren jarrera. Ezta euskara batuaren alde egiten zuen diskurtsoa ere. Eta kalera ikastolatik. Eta egundoko lana eginda zegoen ordurako. Baina, alferrik!, gezurra ibili zuten batzuek, eta egia erdiak beste batzuek. Eusebio kale gorrian

utzi zuten. Eta Eusebio Olabidetik bota zute-nean, Mario Onaindia zenaren andreak ere, Ezozki Leturiondok, utzi egin zion Olabiden eskolak emateari. Esan zuen: «Eusebio kalera bota eta ni hemen, barruan, lanean? Ezin naiz hemen gelditu!». Eta irten egin zuen handik, egoera hura onartu ezinik. Kontua ez zen berehala baretu eta eztabaidak izan ziren berriz, ikastolan, hurrengo urtean, 1972an...

Bestalde, urte hartan, 1972an alegia, euskarazko ikastaroa egin zuten apaiz euskaltzaleek Angoston. Han izan ziren Felix Placer, Koldo Larrañaga, Aingeru Ibisate, Irigarai, Isidro Bastarrika... Arabako apaizentzako lehenengo euskara ikastaroa, hamabost eguneko. Hamabi apaiz izan ziren bertan eta batek baino gehiagok hantxe jaso zuen lehenengo ikasgaia. Felix Placerrek, adibidez. «Hura oso polita eta oso inportantea izan zen aldi berean. Gasteizen, berriz, Eusebio Osarekin, Juanjo Urangarekin eta besterekin segitu genuen euskara lantzen.»

Olabidetik kanporaturik, garai latzak izan ziren Eusebioarentzat eta bera maite zuen jendearentzat. Arantxaren esanak dira, Eusebioren alargunarenak: «Tristeia izan zen, eta gogorra! Eusebio begitan hartu zuelako zenbait jendek. Eusebiok asko balio zuen, guk bagenekien, eta bera ere ongi jabetu zen garai hartan. Baina gogorra izan zen. Eta tristeia».

Apaizgoa utzirik

Buru-lanak triste, eta bihotzari zegozkionak, berriz, gogor. Arantxa Uribarriekin hasi zuen adiskidantzak sustrai sakonak egin zituen, maitasunezkoak, eta apaizgoa utzi eta ezkontzeko erabakia hartu zuten 1973an. Nahia gauzatzea neke, orduan ere, sekularizazioa ez baitzen ate irekia. Arantxa Uribarriek gogoan du: «Gasteizko gotzain Peralta indar egiten ari zen Eusebioaren kontra. Makina bat buelta egin zuen Eusebiok gotzaindegira! Gotzainak esaten zion bere barrutitik irteteko, joateko Bizkaira, Gipuzkoara edo nahi zuen lekura, Araban ez zuela eta apaiz ernegaturik nahi». Ezkongaiak



Eusebio eta Arantxa, Josu Torre adiskidearen ezteietan

ezkontza-eguna izendatu, hala ere: otsailaren 15a, nahiz eta agiririk ez. Esperantza kalean zegoen Paloma elizara joan eta ezkonduko zirelako oharra, pregoia, jarri zuten bertan. Eta apaizen batek gotzainari jakinarazi, eta honek ohar hura kentzeko agindu. «Hain larria zen, nonbait, batek apaizgoa utzi eta ezkontzea! Baimenik ez genuen, ezin ezkondu,

ez elizatik, ez zibilez ere. Azkenean, Eusebio: “Gauzak zuzen egin nahi ditugu baina ez diguzue uzten. Hortaz, nahi ez duguna egitera behartzen gaituzue. Elkarrekin bizitzen jarriko gara”. Baina, lehenago, iluntze batean Jose Maria Setien Gasteizen izan zen, bileraren bat zuen, oker ez banaiz. Eusebio lehendik ezagutzen zuen Setien, hau Gasteizko apaizgaitegian irakasle ere izana zen, eta laguntza eskatu nahi zion. Hitz egin zuten, baina auto baten barruan, Gasteizen bueltaka eta bueltaka ibili ziren. Beste inon hitz egin beharrean, auto barruan, bueltaka. Bitartekari lanak egingo zituela agindu zion Setienek Eusebiori, baina, azkenean, ez zen premiarik izan, otsailaren 14an, egun bateko aurrerapenez, baimena jaso genuen Erromatik. Eta martxoaren 3 batez ezkondu ginen! Harrezkero Eusebio ez zuen eliza ofiziala-

rekin bat egin. Fedea ez zuen behin ere ukatu, hala ere. Sinestun zen.»

Hurrena, enpresa batean hasi zen lanean Eusebio Osa, Gasteizko Sanchiz Bueno-n inportazio-esportazio atalean, frantsesez bazekiela baliatuz. Gero, merkataritza ingelesa ere landu zuen. Lantegian jardun zuen 1974tik 1979ra. Dena dela, ez zen gustura izan enpresa hartan. Lanak ez zuen asebetetzen. Eusebio enpresa gizona ez izan! Sanchiz Bueno enpresan lan egin eta esan zion emazteari: «Probatu dut zer den enpresan lan egitea, eta hau ez da nire mundua!».

Sanchiz Bueno-n lan egin bitartean, dena den, gau-eskolen mugimenduan parte hartu zuen, irakasle, bateko eta besteko parrokian, Zaramagan eta bestetan. Eta idazteari ere ez zion utzi, alderantziz baizik: gehiago idatzi



Eusebio eta Arantxa, Belaguan, 1974an

zuen harrezkero. Beti izan zuen bertsoetarako afizioa, bertsoak idatzi gutxi ere ez, baina ondoko urteetan epaile lanak beteko zituen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Epaimahaikideek bertso bakoitzaren puntuazioa agerian erakusten zuten sasoi hartan, hain zuzen. Oñatin jardun zuen garaian agustindarren *Erein* aldizkarian ez ezik *Yakin*-en, *Zeruko Argia*-n, *Jesus'en Biotzaren Deya*-n, *Anaitasuna*-n eta *Olerti*-n argitaratu zituen lanak.

Bertso eta poema artean da Sabin Salaberrik musikaturik Araba abesbatzak kantatu izan zuen testua, *Gurea da!* izenekoa. Disko berean, berarenak dira hiru bat kantaren hitzak. Eusebiok esaten zuenez, «kiraultza txoriekin nahasten nuen garaiko kontuak». Etxean, berriz, beti izan zuen olerki txikiak idazteko joera. Emazteari ere noiznahi jarriko zion olerkitxoa paper mutur batean idatzirik: «lau bat lerro, besterik ez. Amets egitea gustatzen zitzaien».

Bide berri bila

Enpresan gustura ez, bide berri bila abiatu eta aukerak aztertzen hasi zen Eusebio Osa. Teologia titulazioa baliatzea zuen bat. Horretan, aspaldiko adiskideak lagundu zion, Oñatiko agustindarren garaiko Patxi Lasak. Hau Ekuadorren zen, eta honen bidez jakin zuen titulazioari etekin ateratzeko modua, hau da, balioztatzea. Ekuadorrek hitzarmena zuen Espainiarekin, titulu eta agiriak baliokidetzeko. Hitzarmena, hala ere, amaitzeko zorian zegoen. Arantxa Uribarrik gogoan du oraindik Eusebio Ekuadorra goizeko 5ak aldera hoska telefonoz. Quitotik Patxi Lasak garbi jakinarazi zion: huraxe izango zen hitzarmena indarrean izango zen azken urtea. Ikasturte bakar batean Filosofia tituluaren jabe egiteko modua zuen. Eusebiok eta Arantxak kontuak egin eta, asko pentsatzeko betarik gabe, zirt-zart, Ekuadorreko bidaia antolatu zuten 1979ko maiatzean.



Ingeles-agiria jaso zuen momentua

Eta senar-emazteak Ekuadorra! PUCE-n (Pontificia Universidad Catolica de Ecuador) egin zen Eusebio Osa Filosofia lizentziaturaren jabe. Eta han zegoela, Euskal Herriko berri eman zioten Pako Eizagirrek eta bestek Gasteiztik: bertako Irakasle Eskolan irakasleak behar zituztela jakinarazi zioten, eta albiste eman ez ezik, agiriak zuzentzen ere hasi zitzaizkion. 1980ko ekainean itzuli eta urria orduko Eusebio Gasteizko Irakasle Eskolan ari zen lanean, Euskara departamenduko kide eta irakasle, *Euskararen Morfosintaxia* eta *Euskal Dialektologia* eskolak ematen. Hurrengo ikasturtean zuzendaritza taldeko kide zen.

Liburuetan, *Pedagogia eta Gizartea*, 1972an, eta *Dialektikaz eta kulturaz* 1975ean, zituen argitaratuak, gogoeta eta pentsamendu lanak. Beste lan batzuetan ere parte harturik

zegoen, *Jakin* taldeko lagunen eskariz: *Erljioa hauzipean* (1971) lanean, adibidez, Joseba Arregi, Joxe Azurmendi, Txillardegia, J.M. Torrealda eta Piarres Xarritonekin batera, bai eta *Gure Ikastola* (1972) izenekoan ere.

Tartean, lan bat ondu zuen, literaturazkoa: *Elurra* (1973). 80ko hamarkadaz gero, *Egin* eta *Deia* egunkarietan ere idatziko zuen. Hurrena, Egunkaria Sortzen proiektuko sustatzaileen artean ageri da Eusebio Osaren izena. Gero, kolaborazioak argitaratuko zituen *Euskaldunon Egunkaria*-n, zutabe eiteko gogoeta eta zertzeladak eskainiz.



Illobarekin



Eusebio eta Arantxa, eta haren keinu tipikoa



● Eusebio Osa 1970ko hamarkadaren amaieran zuzendutako, berriz argitaratutako

Euskaldunon Egunkaria-n argitaratu zuen azkena



Eusebio Osaren lan postumoa ASJUN



AEBetan bideratu zuen doktore-tesia

Gasteizko irakasle eskolan

Horri dagokionez, UPV-EHU sortu berri zen eta Valladolideko Unibertsitatetik Euskal Herrikoira igaro zen Gasteizko Irakasle Eskola. Garai hartan, unibertsitatea zuzenduko zuten buruak falta ziren. Gregorio Monreal errektore izendatu eta bideratu ziren zenbait zuzendaritza talde, Gasteizkoa kasu: Margarita Miñon, Marisa Garaigordobil, Jon Zaballa eta Eusebio Osa izan ziren zuzendaritzakoak. Jon Zaballaren hitzetan, «diktadura osteko urteak ziren eta, azkenean, askatasun osoa izan zuen Eusebiok bere jakintza transmititzeko, irakaskuntza zentsurarik gabe antolatzeko, eta energia handienak eskaini zizkion arloan

nahi beste sakontzeko: euskarari, alegia». Zuzendaritzako kide zen aldetik, administrazio-lana burutu behar izan zuen, eta ez gutxi kostata. Zuzendaritzako kide izateari utzi zionean, berriz, kudeaketan segitu behar izan zuen, Euskara Batzordean lehenengo, eta Euskararako Kabinete Teknikoko arduradun, berriz, ondoren. Eta, beti, irakasle.

Garai honetakoak dira zenbait aldizkari espezializatutako argitaraturiko lanak, euskararen gainekoak gehienbat, dela *Tantak* pedagogi agerkarian idatziak, edo *Euskera* eta *ASJU*-n argitaratuak.

Gasteizko Irakasle Eskolako Euskara departamenduko kide zelarik izan zuen AEBetara



Mendizale



Tesia irakurri zuen eguna. Epaimahaia, batean. Andolin Eguzkitza agurtzen, berriz, bestean



joateko lehen aukera. 1986ko udan, UPV-EHUK Renoko (Nevada) Unibertsitateko *Basque Studies Program*-ekin zuen hitzarmena baliatuz, beka eskatu eta joan ziren Osa senar-emazteak hara, hilabete eta erdiko. Egonaldi hartan lagun izan zituzten, besteak beste, Koldo Larrañaga, Alfonso Perez Agote, Teresa del Valle, Laura Mintegi etab.

Handik urte batzuetara berriz joango ziren Renora Eusebio eta Arantxa. 1991n sei hilabete egonaldia egin zuten Nevadan. Madrilgo Hezkuntza Ministerioak emandako laguntza baliatu zuen orduan Eusebio Osak. Horretarako,



Andres Osa

First Basque Session at AAA

Events for the conference series of the American Anthropological Association's Annual Meeting was dedicated to Basque. "Basque: Making 'Old World' and 'New' the same" was chaired by William A. Denham (Coordinator of the Basque Studies Program) and organized by Jo. Domingue and Steven J. Bourke. The meeting was held December 2-4, 1991 at the San Francisco Hilton. Papers were presented by:

Edward V. Voth, "History and Identity: Who's Basque?"
Teresa del Valle, "University del País Vasco: Fundamentals of the Basque Language: a Contemporary Basque Society"
Franko Zolotas, "University of Nevada, Reno: 'Where Are You From?' (Basque: 'Basque') Culture and Ethnicity in the 21st Century"
Steven J. Bourke, "The Basque Language: The Cultural and Historical Context"
William A. Denham, "The Basque Language: The Cultural and Historical Context"
Steven J. Bourke, "The Basque Language: The Cultural and Historical Context"

Also participating in the session were: Steven J. Bourke, "The Basque Language: The Cultural and Historical Context"; Franko Zolotas, "University of Nevada, Reno: 'Where Are You From?' (Basque: 'Basque') Culture and Ethnicity in the 21st Century"; Steven J. Bourke, "The Basque Language: The Cultural and Historical Context"; William A. Denham, "The Basque Language: The Cultural and Historical Context"; Edward V. Voth, "History and Identity: Who's Basque?"

Goinu Bego, Eusebio Osa

We were saddened to hear of the passing of Eusebio Osa, a former visiting scholar and good friend of the Basque Studies Program. Eusebio Osa (November 1914 - March 27, 1991) in Reno, and spent his lifetime promoting and studying the Basque language. His contributions were recognized on the program of his death. The staff of the Basque Studies Program will be very sorry to hear of his passing.

RSP on CNN

Basque Studies Program's efforts to the Basque Studies Program and William A. Denham, the director, p. 21 was featured on the CNN News Network and broadcast on March 20, 1991 as part of the "World Report" news program. We hope to obtain coverage of the program for future use.

Mondragon Book Available

Basque Studies Program's efforts to the Basque Studies Program and William A. Denham, the director, p. 21 was featured on the CNN News Network and broadcast on March 20, 1991 as part of the "World Report" news program. We hope to obtain coverage of the program for future use.

Eusebioren heriotza Renoko *Basque Studies Program* mintegiaren berri-paperean


doktore tesia egiteko ikerketa proiektua aurkeztu zuen, gero, 1989an, liburuan argitaratuko zuena: *Euskararen hitzordena: Komunikazio zereginaren arauera*, Patxi Goenaga irakasleak zuzendu zuen lana, eta Azkue ikerketa saria ere jaso zuen argitaratu zen urtean bertan.

AEBetan bideratu zuen doktorego tesi hori Eusebio Osak. Bestalde, hango egona betiko ageriko da Eusebiori loturik, AEBetatik Euskal Herriko euskarazko zenbait hedabidetara bidali zituen artikuluak lekuko.



«Egunen batean Nevadako mendisail gorrietan zehar murgiltzen bazara eta han, bazterren batean gizon kaskagorri eta begiurdin bat, bizkarrean bideo-kamara bat duela zuhaitzen baten

inguruan jirabiraka ikusten baduzu, jakin ezazu hori Joxe Mallea bizkaitarra dela. Ez dago besterik inguru hauetan horrela dabilenik. Eta jakin ezazu zuhaitz horiek lertxunak direla, eta lertxun horien gerrietan markak, datak, ize-nak, bertsoak, euskal artzainak basamortuan, beren ordu mortuetan, idatziz joan direnak. Nevadako mendi eta errekarro bakartietan idatzita dago euskaldun talde haundi baten historia. Artzainak historia egin du... » (1991)

Center for Basque Studies-eko irakasle da Eusebio Osak aipatzen digun Joxe Mallea-Olaetxe. Oñatiko agustindarren garaian elkar ezagutu zutenak. Batak, Eusebiok, lertxunetako inskripzioak aztertzen ikusten du Mallea-Olaetxe. Honek, haren txikitako gomuta du



Heriotza-oroigarria, Koloradoko Arroila Handian egindako argazkian



Eusebio AEBetan, senide eta lagunez inguratutik

oraindik: «Eusebio Osa —guretzat “Sakone”—, beti izan zen gizon “finkatua”, gazterik gizondua edo. Lagun eta adiskiderik onena edonorentzat, irri erraxekoa, beti umoretsu, baina osasun aldetik gaztetan ere besteok baino kargu gehixeago behar zuena».


Hil zenean, AEBetako egonaldian egindako argazkiak hornitu zuen haren oroigarria: «Ixiltasunak ere badu bihotzik». Bertan, Eusebio, Koloradoko Arroila Handian ageri da, betiko.

Eta ez da debaldetan esana. Monumenturik ezean, oroigarria ere badu Eusebio Osak AEBetan, Renon, Joseba Zulaika *Center for Basque Studies*-eko zuzendariaren etxean. Hala kontatzen du Zulaikak berak: «1990eko udazkenean hemen izan ziren Eusebio eta Arantxa. Etxetxo bat erosi genuen abendu orduko eta galdera egin nion Eusebiori, etxe inguruan ze arbola jarriko. Berak ez zuen zalantzarik izan: “Intxaurra!”. Renon horretan ari zirenei galdezka hasi eta jakin nuen intxaurrarentzat giro gogorregia dela berta-

koa. Hortaz, bertan behera utzi nuen Eusebio esandakoa. Handik bi urtera edo hil zen Eusebio... 1998an beste etxe batera aldatu ginen. Eta, zer izango eta etxeak intxaur arbola atzeko zelaian! Bada, "Eusebioren intxaurra" du izena, lehenengo-lehenengo egunetik, gure arbola horrek. Adiskidearen memoria gordetzen du gure etxean. Euskal Herrira joaten naizenero, intxaur aleak emateko ohitura daukat Arantxari, Eusebio zenaren alargunari. Arbola horrek intxaur pila ematen dizkigu, eta sekulako babes...».

Heriotza

Eusebio Osa 1993ko otsailaren 22an hil zen, gaitzak azkar jota. Minez jakin zuten heriotza albistea hura ezagutu zutenek. Haren dohainak azpimarratu zituzten askok. Joxe Azurmendik 60ko hamarkadaren hasieran ezagutu zuen Eusebio, *Yakin* eta *Erein* aldizkarien sasoian. «Errealista eta idealista zelako, hainbat ekintzatan sartuta ibili izan zen beti. Bere liburuak askatasun tresna pedagogiko bezala, herri hau eta herri honetako jendea askatzeko idatzi zituen.»



Hil ondoko bilduma, lankide izan zituen adiskideek egina



Eusebio Osak ondu zituen lanetako batzuk

Haren pentsamenduari dagokionez, berriz, Paulo Iztuetak *Pedagogia eta Gizartea* liburua argitara zeneko aldia izan zuen gogoan; hau da, 70eko hamarkadaren hasiera. «Burgosko prozesuko garai hartan euskal gizartea pil-pilean zegoen, bai maila sozialean, bai eta nazionalean ere. Gero eta ideia berri gehiago sartzen ari ziren, baina oraindik hor zegoen lehengo pentsamolde klasikoa.»

Iztuetaren arabera, Eusebio Osak bi eratako eraginak jaso zituen: batetik, 68ko Maiatzaren ondoko pentsalari ezkertiarrena; bestetik, aldiz, Paulo Freirerena. «Eusebiok senti-

beratasun berezia izan zuen ideia horiek euskal gizartean aplikatzeko. Garai hartako testuinguruaren argitzailea izan zelakoan nago. Eusebio, batik bat pentsalaria izan zen, gaur egun nekez erosten den urrea.»

Eusebio pentsalari, Eusebio ekintzaile, Eusebio... laguna. Haren heriotzaren berri jakin eta Eusebio beraren barrutik idatzi zuen Jerardo Elortzak Oñatiko *Kontzejupetik* herri aldizkarian 1993ko martxoan, San Prudentzioko erara: «Gutxien uste gebenian, fan haiz hi be. Ixil antxian, zarata larregi barik, betiko moduan. Baiña ez lotan eta alperkerixan egon haizelako».



Eusebio Osa eta Pako Eizagirre adiskidea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Arantxa Uribarriri
- Aihardi-Sakona baserriko Anjel eta Maritxuri
- Juanito Osari
- Pako Eizagirre, Kepa Mallea eta Andres Osari
- Renoko Unibertsitateko *Center for Basque Studies*-i eta, bereziki, Joseba Zulaika eta Joxe Mallea-Olaetxeri
- Pello Salabururi
- Pablo Anduagari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz & Zaldi Ero

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2370-7 (Lan osoarena)
84-457-2372-3

L.G.: BI - 3287-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística